

57. artikulua

1. Funtzio publikoan aritzea bateraezina izanen da, edozein kargu, lanbide edo jarduera publiko nahiz pribatutan, bakoitzaren kontura edo besteendako, ordainduta edo soilik ohorez, aritzearekin, funtzionarioaren betebeharrak betetzea eragotzi edo gutxietsi, beraien inpartzialtasun edo independentzia ezbaian jarri edo interes orokorrak kaltetzen badituzte.

2. Funtzionario publikoek ezin izanen dute merkataritza, industria edo lanbide jarduerak burutzean funtzionario direla aldarrikatu edo izaera hori erabili.

3. Estatutu honen aplikazio-eremuan sartutako funtzionarioek ezin izanen dute soldata bat baino gehiago jaso Administrazio, Entitate edo Erakunde Publiko, edo horien menpeko erakunde eta enpresen Aurrekontuen kargura, unibertsitateko ikastetxeetan irakaskuntza lanak egitearen ondoriozkoak izan ezik.

Ondorio hauetarako, soldatatzat hartuko da aldioroko ordainsari oro, edozein izanik horien zenbateko eta izena.

4. Funtzio publikoan aritzea ondoko jarduera pribatuekin osoki bateraezina izanen da:

a) Enpresa pribatuetako Administrazio Kontseiluei aholku ematea edo horien partaide izatea, beti ere horien jarduerak eta funtzionarioak bere zerbitzuak ematen dituen Administrazio Publikoak burutzen duenak zerikusi zuzena badute.

b) Funtzionarioa atxikita dagoen Administrazio Publikoarekin egindako itunen, hau da, zerbitzuak jarraian edo noizbehinka ematekoen, titulartasun indibiduala edo besterekin banatutakoa, edozein izanik zerbitzu horien izaera.

c) Funtzionarioa atxikita dagoen Administrazio Publikoarekin zerbitzuak emateko itunak dituzten elkarten kapitalaren 100eko 10 baino handiagoko partaidetza, edozein izanik zerbitzu horien izaera; baita aipatu elkarte horien zerbitzura egindako lana ere, jarraian emandakoa edo jarrai gabekoa, ordaindutakoa edo ordaindu gabekoa, ordutegiari atxikia edo atxiki gabekoa.

5. Iharduneko zerbitzuan dauden funtzionarioek, Administrazio Publikoetatik kanpo burutzen dituzten irabazizko jarduerak, lanbide, lan, merkataritza edo industriakoak,

aitortzeko obligazioa dute, norberaren edo familiaren ondarea administratzearen ondoriozkoak izan ezik, azken hauek aurreko atalean ezarritako bateraezintasunen araubideari atxikiko baitzaizkio. Aitorpen hori ikusirik, behar den Administrazio Publikoak arrazonatutako ebazpena eman beharko du. Horretan deklaratu da funtzionarioaren betebeharrak betetzea eragotzi edo gutxietsi, beraien inpartzialtasun edo independentzia ezbaian jarri edo interes orokorrak kaltetzen dituzten jarduerak bateraezinak direla.

6. Nafarroako Administrazio Publikoek parte hartzen duten enpresen gobernu organoetan horien ordezkari gisa arituko diren funtzionarioek, organo horien bilkuretara joateagatik dagokien dieta edo kalte-ordainak soilik jaso ditzakete. Enpresek beste edozein kontzepturengatik sortutako zenbatekoak zuzenean ordainduko dizkiote behar den Administrazio Publikoari.

7. Erabateko dedikazioaren osagarria esleiturik duten lanpostuak betetzen dituzten funtzionarioak, Estatutu honetako 45.2 artikulua aipatzen duen debeku berariazkoari lotuko zaizkio, aurreko ataletan ezarritako bateraezintasun orokorrak ahaztu gabe.

8. Bateraezintasunaren osagarria esleiturik duten lanpostuak betetzen dituzten funtzionarioak, Estatutu honetako 46.2 artikulua aipatzen duen debeku berariazkoari lotuko zaizkio, aurreko ataletan ezarritako bateraezintasun orokorrak ahaztu gabe.

9. Artikulu honetan ezarritako bateraezintasun araubidea ez betetzea hutsegite oso larritzat hartuko da. Diziiplina espedientea irekiko da, Administrazioak, egin den bateraezintasuna eraginkorra izan dadin har ditzakeen neurriak berehala hartzea galarazi gabe.

10. Bateragarria den jarduera bat burutzea ez da aitzakiatzat hartuko, karguari dagokion bitokia izan eta lantokira joateko betebeharrak dagokienean, ezta horietan emandako gibelamendu, axolagabekeria edo arduragabekeriari dagokienean ere. Horrela ez bada, Administrazioak, emandako bateratasunaren baimena berehala utziko du indarririk gabe eta egindako hutsegiteak zehaztu eta zehatzeko diziiplina espedientea irekiko.